

2021eko Eguberrietako kanpaina

## **EROSKI-K ARKUME, GAZTA ETA ARABAKO ERRIOXAKO ARDO SALMENTAK HANDITZEA ESPERO DU EAE-N**

- EAEko tokiko produktuen salmenta %7 igo da 2021ean
- Produktu freskoak dira oraindik erosketen oinarria, nahiz eta igo egin diren Eguberrietako gozokiak eta edariak, hala nola Arabako Errioxako ardoa, txakolina eta sagardoa
- Kontsumitzaileak gutxi planifikatzen ditu Eguberrietako erosketak, eta batez ere denda fisikoan erosten jarraitzen du
- EROSKI-k 2021eko Eguberrietako kanpaina abiarazi du, *"Zurekin dena berri on"*, ardatzean jarriz Eguberrietako erosketak bideratzeko erraztasuna, dela sortaren bidez, dela erosketa kanalen bidez eta dela aurrezpen bidez

Elorrio, 2021eko abenduaren 16a.- [EROSKI](#)k iragarri du EAEko tokiko produktuen salmenta igo egingo dela Eguberrietako kanpainan; batik bat, edariak, hala nola Arabako Errioxako ardoa, txakolina eta sagardo naturala. Hala berean, arkumearen, kontserbako atunaren eta beste produktu batzuen salmenta igoko dela espero du, egun horietan gertatu ohi den moduan; esaterako, Eguberrietako gozokiarena.

*"Tokian tokiko produktuek igoera argia izango dutela uste dugu Eguberrietakoa izan ohi den kanpaina berezian, nahiz eta joera hori pandemiaren hastapenetik sumatu dugun. Produktu freskoen igoera esponenzialarekin izan du ikustekoa, hori izaten baita Eguberrietako erosketen oinarria, baina lotua dago halaber kontsumitzaileak tradizionalak diren tokiko kalitatezko produktuetan jartzen duen konfiantzarekin; esaterako, ardoa, bereziki Arabako Errioxakoa, eta Idiazabal gazta. Kontsumitzaileak kalitatea bilatzen du, eta gehienbat tokiko produktuetan aurkitzen du"*, esan du Asun Bastidak, EROSKIren tokiko produktuetarako zuzendari komertzialak.

EAEko produktuen salmenta %7 igo da urte honetan, eta nabarmentzen dira Idiazabal gazta (%50), Errioxako jatorri izen kalifikatua duen ardoa (%24), txakolina (%25), barazkiak (%11) eta atunaren moduko arrain kontserbak (%13).

### **Freskoagoa eta ekologikoagoa**

Oro har, Eguberrietan ere, produktu freskoak izaten dira erosketen oinarria (fruta, barazkiak eta arraina), nahiz eta, esperientzien kategoriakoak postuak irabazten ari diren garai horretan (esaterako, ardoa, itsaski izoztuak eta Eguberrietako gozokiak).

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



Hala berean, azpimarratzekoa da elikadura era berrien hazkuntzari loturiko joerak eta bizi estiloak; adibidez, produktu ekologikoak (%7) eta fresko ontziratuen soluzioak (arraina, %28; axuria, %23; eta behikia %16).

Kontsumitzaileen erosteko ohiturei dagokienez, EROSKIk joan den Egunerrietan kontsumitzaileei egindako inkesta bateko datuetatik ondorioztatzen denez, ikusten da oraindik nahiago dutela denda fisikoan erosi, eta gutxi planifikatzen dutela. Hori da 10 kontsumitzailetik 6ren hautua. 4tik batek bakarrik esan zuen asko lehenagotik egiten zuela erosketak, nahiz eta erosketak gehiena abenduaren 15a baino lehen egin.

### **2021eko Eguberrietako kanpaina**

"Zurekin dena berri on" leloarekin, EROSKIk 2021eko Eguberrietarako, ardatzean jarri ditu erosketak errazten duten tresnak eta kanalak, ezjakintasun garai honetan. EROSKIk azpimarra jarri du dendan bertan aurretiaz erosteko posibilitatea; aukera hori kontsumitzaileen %17k erabili zuten iaz; eta horren ondotik datoz gainerako kanalak (EROSKI Online, *Click&Drive*, *Click&Collect* eta armairutxoak).

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa